

**Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen kide
diren Euskadiko GGKE-en lanak (2012-2022)
Perun eragindako inpaktuen
ebaluazioari buruzko
Dibulgazio-txostena**



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI



www.ongdeuskadi.org

Araba

Simone de Beauvoir Elkarteen Etxea
San Ignazio Loiolakoa 8, 3. 1. bulego
01001 **Gasteiz**

☎ 945 280 745
araba@ongdeuskadi.org

Bizkaia

Erronda z/g (5. zk-ren aurrean), 3. C bulegoa
48005 **Bilbao**

☎ 944 150 300
bizkaia@ongdeuskadi.org

Gipuzkoa

Iparragirre 8, behea
20001 **Donostia**

☎ 943 463 526
gipuzkoa@ongdeuskadi.org

Azterlanaren arduradunak: Maruja Barrig eta Leire López Delgado

Argitalpen urtea: 2023

Diseinua eta maketazioa: Marra S.L.

Laguntzaileak



Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak Perun dituen bazkide batzuek 2012 eta 2022. urteen artean egindako lanaren ebaluazio-azterketa bat bideratu zuen 2023ko maiatzaren eta irailaren bitartean. Euskadiko GGKE-ek herrialdean ibilbide zabala eta presentzia aktiboa dute, eta azken urteetan funts gehien inbertitu dituztenetako batzuk dira¹. Helburu orokorra izan zen ikerketan parte hartu zuten GGKE-en ekintzek izan zuten inpaktua era kuantitatiboan eta kualitatiboan neurtzea, eta, aldi berean, hiru sektore-ardatz hauetan izan duten ekarpena ikusaraztea: 1) Tokiko Giza Garapena/Tokiko Garapen Ekonomikoa, 2) Emakumeen ahalduntzea; sexu- eta ugalketa-eskubideak; emakumeen aurkako indarkeria eta 3) Tokiko Erakundeak sendotza. Ikuspuntu sistemikotik ikasketara bideratu zen azterketa, eta generoa, dibertsitatea eta eskubideak zeharkako ikuspuntu gisa hartu zituen barruan.

Hurrengo orrietan laburtu dira erakunde hauek egindako ekimenen inpaktuari buruzko Txostenaren alderdirik esanguratsuenak: Medicus Mundi Gipuzkoa (MMG); ADSIS Fundazioa; Mundi Farmazialariak Euskadi; Proclade Yanapay; Zabalketa; Egoaizia; Mugen Gaietik; eta Medicus Mundi Araba (MMA). Lehenik eta behin, herrialdera bideratutako nazioarteko lankidetzako baliabideei buruzko informazioaren laburpena egingo da, baita azterketa egin den urteetan Perun gertatutakoei buruzko azalpen laburra ere.

EKARPENAK. 1985ean Euskadiko erakundeen lankidetzak publikoa hasi zenetik, Latinoamerika izan da funtsen helburu nagusia eta Peru hartzaile nagusietakoa. 1998 eta 2008 bitartean, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien laguntza gehien jaso zuen herrialdea izan zen. Tarte horretan 215 proiektu onartu ziren herrialde hartan, 38.433.308 euro²-ko laguntza, guztira. Zenbatekoaren banaketa taula honetan ikus daiteke:

01. Taula

Peru: onartutako proiektu kopurua eta haiei bideratutako zenbatekoak, finantziatzailearen arabera (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak), 1998-2008

1998-2008	Eusko Jaurlaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Proiektu kopurua	141	13	49	12
Zenbatekoak (euro)	29.500.396	975.798	6.501.427	1.455.688
Euroak/proiektu	209.223	75.061	132.682	121.307

Iturria: orri-oinan aipatutako txostena.


- 1 Ikerketa Leire López Delgado (Euskadi) eta Maruja Barrig-ek (Peru) egin zuten, Euskadin, Lima Metropolitarran eta Iquitos-en egindako landa-lan presentzialarekin.
- 2 Analisia: Euskadiko Lankidetzak Perun 1998-2008. Tokiko giza garapenerako, genero-berdintasunerako eta gizartearen parte-hartzerako ekarpenak. Luis Guridi Aldanondo eta Iván Molina Allende Ikerketa taldearen zuzendaritza: Yolanda Jubeto eta Mertxe Larrañaga. HEGOA. 2011ko urtarrila

2011-2021³ urteen artean, Eusko Jaurlaritzaren, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundien eta hiru hiriburu-udalen (Gasteiz, Donostia eta Bilbo) lankidetzaren bidez, 431 proiektu onartu ziren (onartutako proiektu guztien % 8,57), 54.635.346,41 euroko zenbateko osoarekin (onartutako funtsen guztizkoaren % 11,72). Tarte horretan Euskadiko lankidetzaren publikotik funts gehien jaso dituen herrialdea izan da beste behin.

2010ean, Espainia zen laguntza-bolumen handiena zuen herrialdea (46,7 milioi USD), eta bigarren AEBak ziren (28,2 milioi USD). Urte hartan, AEBetako (47,3 milioi USD) eta Espainiako (36,1 milioi USD) lankidetzaren pribatuak modalitate horretako guztizkoaren % 55,49 hartzen zuten. 2021ean, AEB (126,5 milioi USD) eta Alemania (23,9 milioi USD) izan ziren nagusi. Urte hartan, Estatu Espainiarreko erakunde deszentralizatuetatik 4,4 milioi USD jaso ziren, eta herrialdeak jasotako Espainiako lankidetzaren % 55 osatzen dute. Horietatik 1,3 milioi USD Euskal erakundeei dagozkie, guztizkoaren % 31,03. Grafiko honetan ikus daiteke banaketa⁴.

01. Grafikoa

Estatu Espainiarreko lankidetzaren deszentralizatutik jasotako funtsak 2021ean



Geuk egina. Iturria: Peruko nazioarteko lankidetzaren teknikoaren egoera eta joerak 2021 OHARRA: jatorrizko txostenean, Eusko Jaurlaritzaren funtsak (188.168,00 €) eta Euskadiko Garapenerako Lankidetzarako Agentziarenak (529.726,00 €) bereizita jasotzen dira.

- Azterketak 2012 – 2022 tarte hartzen badu ere, 2021. urtera arteko datuak soilik aurkitu dira, beraz, hamarkada horretako informazioa erazuzi da. Euskadiko lankidetzaren publikoaren atariko datu-basetik erazuzi dira datuak: <https://euskalankidetzaren.hegoa.ehu.es/>
- Nazioarteko Lankidetzaren Peruko Agentzia erakundearen txostenak. <https://www.gob.pe/institucion/apci/informes-publicaciones/4116581-situacion-y-tendencias-de-la-cooperacion-tecnica-internacional-en-el-peru-2021>

Lurraldeko helburuei dagokienez, Limak jasotzen ditu funts gehien, ofizialak nahiz pribatuak, eta 2010ean % 22,76 (76 milioi USD) eta 2021ean % 28 (132,1 milioi USD) izan ziren. Urteak aurrera egin ahala, Cuscok jasotako kopurua txikituz joan da eta Loreto eskualdean handitu da gehien funtsen kontzentrazioa. Halaber, Euskadiko lankidetzak bat egiten du kontzentrazio geografikoarekin: erakundeek % 71k Liman daudela diote.

Sektoreei dagokionez, eta herrialdean orokorrean, pobrezia eta gosea eraztetik osasunerantz bideratzen joan da lankidetzak. Emakumeen eskubideen kasuan, 2010eko esku-hartzeen % 8,5 osatzen zuten. Bolumena jaitsi egin da eta, 2021ean, herrialdean gauzatutako nazioarteko lankidetzaren % 5 inguru izan zen. Aztertutako denbora-tartean, Euskadiko lankidetzak Emakumeen eskubideetara (funtsen % 33,97) eta Tokiko garapen ekonomikora (% 29,45) bideratu ditu funts gehienak.

Euskadik Perurekin lankidetzak luze eta jarraitua izan du. Euskadiko entitate ia erdiek (% 47) pasa den mende erdialdean hasi zuten ibilbidea eta jarraitu egiten dute gaur egun. Erakunde horietako asko erlijio-kongregazioetatik sortu ziren eta mantendu egin dira eliza katolikoarekin eta/edo jatorri konfesionalarekin erlazionatutako tokiko bazkideekin dituzten loturak. Análisi azkar bat eginez ikus daiteke aztertutako denbora-tarteko funtsen % 35 gutxienez jaso dutela.

Aipatu beharrekoa da 2008an Errenta ertain-altuko herrialde (EEAH) gisa sailkatu zutela Peru, Munduko Bankuaren estandarren arabera⁵. Sailkapen hori zalantzan jarri da herrialdeari eragiten dioten egiturazko desberdintasunak eta arazoan aniztasuna dela eta, horiek ezin baitira diru-sarreraren datura murriztu. Sailkapen horrek eragin handia izan zuen 2009an nazioarteko lankidetzaren bidez jasotako funtsen kopuruan, baina berreskuratu egin zen hurrengo urteetan. Nahiko egonkor jarraitu du, eta 2021ean, itzulgarria ez den nazioarteko lankidetzaren bidez Perun jasotako zenbateko osoa 472 milioi USD izan zen; horietatik 335 milioi USD funts ofizialetik jaso ziren eta 137 milioi USD funts pribatuetatik.

Peruk Nazioarteko lankidetzak teknikorako politika nazionala du abian 2030⁶ arte. 2023an eguneratu ziren 2007 eta 2012koak. Politika hori da estatu-mailako irismena duen kudeaketa-tresna nagusia eta ezinbestekoa da Peruko estatuko erakunde guztientzat, gobernu-maila guztietarako. Halaber, politika horrek orientatzen ditu herrialde eta erakunde kooperanteak, gobernu kanpoko erakundeak eta herritarrak, oro har. Horrez gain, Nazioarteko lankidetzako Peruko agenzia erakunde publiko bat da, Kanpoko Harremanetarako Ministerioari atxikitakoa, eta hura arduratzen da itzulgarria ez den nazioarteko lankidetzak gauzatzeaz, programatzeaz eta antolatzeaz.

HERRIALDEA. Peruk 33 milioi biztanle ditu eta eskualdeko beste herrialde batzuetan gertatu den bezala, 2002tik aurrera eta hamarkada batez, onura handiak jaso zituen hango lehengaiak nazioarteko merkatuan, hidrokarburoen merkatuan eta bestelako meatze-produktuenetan

5 Errenta ertain-altua duten herrialdeetan (EEAH), 4.466 USDtik gorako eta 13.845 USDtik beherako per capita errenta dute
<https://datos.bancomundial.org/indicador/NY.GDP.PCAP.CD?end=2021&locations=ZJ-BO&start=2021&view=map>

6 Nazioarteko lankidetzak teknikorako politika nazionala - Política Nacional de Cooperación Técnica Internacional (PNCTI) 2030ean
<https://www.gob.pe/institucion/apci/informes-publicaciones/4155784-politica-nacional-de-cooperacion-tecnica-internacional-al-2030>

izan zituzten aldeko prezioei esker. Horrek moneta egonkortzea ekarri zuen eta diru-sarrerek eragindako pobrezia jaistea XXI. mendearen lehen hamarkada hastean. Beste bi herrialdeekin batera Andeetako azpieskualdea osatzen du, eta per capita BPG apala du: 2021ean 6.621 USD-ekoa zen, Boliviakoa baino apur bat handiagoa (3.345 USD) eta Ekuadorren oso antzekoa (5.965 USD)⁷.

Aipatuenez, BPG eta beste adierazle batzuen igoera dela eta, Diru-sarrera ertain-altuak dituen herrialde bihurtu zen 2008an, Munduko Bankuaren arabera. Hala ere, aztertzen ari garen hamarkadan, ezegonkortasun sozial eta politikoa eragin zuten hainbat faktorek bat egin zuten Perun, eta pobrezia areagotu egin zuten. 2021aren amaieran, herrialdearen ia heren bat zegoen pobrezian, eta % 4,1ek muturreko pobrezia pairatzen du. Horrekin batera, Botere Exekutiboaren eta Legegilearen egoera asaldua dela eta, sei urtetan sei presidente izatearen egoera harrigarria eragin zuen, Botere Legegilearen osieran aldaketak egon ziren eta ministerioetako kabinete mailan mugimendu handia egon zen. Eta guztia etengabeko ustelkeria-gertakari ezagunekin batera. Are gehiago, 2022an Latinobarometro-ko inkestari erantzun ziotenen artean Peruko % 91k dio ez dagoela oso asebeteta edo batere asebeteta demokraziarekin, eta % 90ek uste du alderdi politikoek ez dutela ongi funtzionatzen. Datu horiek direla eta, Latinoamerikako herrialdeen zerrendako buru dira.

Bestalde, 2020. urtearen lehen hilabeteetan, COVID-19aren lehen kasuak agertzen hasi zirenean, garai hartako gobernuak berrogeialdi zorrotza aplikatu zuen. Hartu zuten estrategia kutsadurari eustea izan zen, larrialdiko arreta-baldintza minimoak ezartzen joan bitartean. Pandemiak agerian utzi zuen osasun-zerbitzu publikoen prekarietatea, hazkuntza ekonomikoa izan arren, Estatuak ez baitzituen sortu haiek eraginkorrako egiteko baldintzak. Hirietan, bestalde, ekonomikoki aktiboak diren biztanleen % 70 informalak dira: eskubideak babesten ez dituzten norbere konturako komertzioak edo enpresa txikiak dituzte. Laburbilduz, herrialdeak munduko heriotza-tasarik handienetako bat izan zuen (sei mila hildako milioi bat biztanleko). COVID-19aren eta arreta-urritasunaren ondorioz, 213 mila pertsona hil ziren. 2020an, azken hiru hamarkadetan izandako jaitsierarik handiena izan zuen ekonomiak eta eskualde osoan zigortuena izan zen: % 11 murriztu zen.

Sare publikoaren bidez etxe barruan ura eskuratzeko azpiegitura % 87k dute, argindarra % 96k eta saneamendua, berriz, % 70 ingurukoa da, etxebizitza barruan hustubide-sare publikorako konexioa izatearen arabera neurtuta. Alabaina, zerbitzuen kalitatea baxua eta ezberdina da herrialdean zehar. Ura atzitzeko aukera mugatua da, beti ez delako kontsumitzeko segurua. Ia herrialde osoko osasun-zerbitzuen kalitatea Osasunaren Munduko Erakundeak adierazitako estandarretatik behera dago, eta hezkuntzaren kalitatea baxua da, batez ere oihanean eta mendialdean. Horrenbestez, eskualde-mailako desberdinkeria dago, baita ematen diren zerbitzuen edo horien kondizioena ere. Lanari dagokionez, 2022an langile guztien % 29k soilik zuten lan formala, hots, laneko legeriari, legeria fiskalari eta gizarte segurantzari lotutako lan-lotura. Langileen % 70ek era informalean lan egiten dute, legeen babesetik kanpo, 10 langile edo gutxiagoko enpresa txikietan edo norbere kontura⁸. 2022ko azaroaren eta 2023ko urtarrilaren artean, Lima Metropolitarrako langileen heren batek ez zuen nahikoa diru-sarrera kontsumorako gutxieneko saskia erosteko.

7 Peruren mugakide batzuek, 2021 urtean per capita BPG hauek zituzten: Kolonbiak, 6.104 USD; Brasilek 7.507 USD eta, batezbesteko horretatik urrunago, Txilek 16.265 USD.

<https://datos.bancomundial.org/indicador/NY.GDP.PCAP.CD?end=2021&locations=ZJ-BO&start=2021&view=map>

8 Lanari buruzko adierazleen portaera estatu-mailan. INEI. 2022ko azaroa. <https://m.inei.gob.pe/media/MenuRecursivo/boletines/04-informe-tecnico-empleo-nacional-jul-ago-set-2022.pdf>

Egoera larri horretan, eta genero-indarkeria eta feminizidio kasuak handitu arren, 2022an, eskuineko nahiz ezkerreko parlamentarioek hainbat ekimen jarri zituzten abian: Emakumearen Ministerioari Familiaren Ministerioa izena jartzeko proposamena, 1924az geroztik dagoen abortu terapeutikoa –amaren bizitza arriskuan dagoenean egiten dena– kentzeko proposamena, nerabeen sexu- eta ugalketa-eskubideak lantzen dituzten eskolako testuak zentsuratzeko mekanismoak sortzeko proposamena, eskolek eskaintzen duten Hezkuntza Sexual Osoa (Educación Sexual Integral - ESI) kentzekoa eta abar.

GARAPEN-ERAKUNDEAK. Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen 32 erakundek lan egiten dute Perun. Analisiaren denbora-tartean, Euskadiko erakunde publikoetatik 431 proiektu onartu dira, Euskadiko 36 erakunde eta Peruko 45 erakundeetarako.

Aurretik aipatu denez, sektoreen arabera, Euskadiko erakundeen funtsak, batez ere, bi eremutara bideratu dira: Tokiko Garapen Ekonomikora (Nekazaritza, Arrantza, Landa-eremuko Garapena, Elikagaien Segurtasuna) eta Emakumeen Eskubideetara (Emakumeen berdintasunaren aldeko erakundeak, Emakume eta neskatuen indarkeriaren aurkako borroka, Populazioari eta Osasun-ugalketari buruzko Programak/Politikak). Funtsen % 63,42 eta proiektuen % 62,18 bideratu dira bi eremu horietara. Taularen ondoren, totalaren xehakapena erakusten duen grafikoa ikus daiteke.

02. Taula

Euskadiko funtsek lagundutako esku-hartze sektore nagusiak, zenbateko osoak eta ehunekoak, 2011-2021

Helburu diren sektore nagusiak taldekatuta	Onartutako funtsak (€)	Guztizkoaren %	Onartutako proiektuak	Guztizkoaren %
Emakumeen Eskubideak	18.558.783,04	% 33,97	162	% 37,59
Tokiko Garapen Ekonomikoa	16.089.344,29	% 29,45	106	% 24,59

Geuk egina. Iturria: Euskadiko lankidetzaren publikoaren atariko datu-basea.

Oro har, erakundeek herrialdeko 24 departamentutan egin dituzte esku-hartzeak, Moqueguan izan ezik. Gainerakoetan, gutxienez proiektu bat ezarri da 2011-2021 tartean. Liman (% 71), Cuscon (% 59) eta Ayacucho (% 35) daude kontzentrazio handienak. Herrialdeko eskualde geografikoen banaketaren arabera banaketa geografikoa honako hau da: kostaldea (% 31), mendialdea (% 32) eta oihana (% 17). Bestalde, Euskadiko erakundeek lurraldeko erakundeetatik jasotzen dituzte funts gehien: % 76ak Euskadiko Garapenerako Lankidetzarako Agentziak finantziatutako proiektuak ditu.

Azterketa honetarako, Euskadiko 8 erakunde eta Peruko 7 erakunderekin lan egin da⁹. Haien artean proiektu kopuru handia eta onartutako zenbateko handia hartzen dute barnean aztertutako denbora-tartean. Hurrengo taulan ikus daitezkeenez, hautatutako prozesuek hainbat ekintza eta lurralde estaltzen dituzte, finantziario handiena kontzentratzen dutenak barne. Horri esker, erakundeen eraginaren ikuspegi osoa lortu ahal izan da.

⁹ Euskadiko eta Peruko erakundeen laborpen instituzionalak kontsultatzeko aukera dago I. eranskinean, erakundeek eurek idatzitakoak. Halaber, prozesuetan sartu diren proiektuen laborpen bat ere ikus daiteke azterketaren Txosten osoaren II. eranskinean.

03. Taula

Azterketaren helburuaren muga

Euskadiko GGKE	Peruko tokiko kidea	Hautatutako prozesua	Herrialdeak
Medicus Mundi Gipuzkoa (MMG)	Movimiento Manuela Ramos (MMR)	Sexu-hezkuntza osoa Lidergoen garapena Gaitasunen garapena	Lima
ADSIS Fundazioa / Mundi Farmazioalariak Euskadi	Centro de la Mujer Peruana Flora Tristán (CMPFT)	Sexu- eta ugalketa- eskubideak / Sexu-hezkuntza osoa Emakumeen ahalduntzea Politika publikoak adostea	Lima Cuzco / Ucayali
Proclade Yanapay	CENDIPP	Tokiko garapen ekonomikoa generoaren zeharkako estrategiarekin	Loreto
Zabalketa	Cáritas Iquitos	Genero-indarkeriak prebenitzea	Iquitos
Egoaizia	CIPCA	Kakaoaren nekazaritza- kooperatiba Ekonomia soziala eta solidarioa, Gaitasunen garapena	Piura
Mugen Gaietik	DescoSur	Tokiko garapen ekonomikoa	Arequipa
Medicus Mundi Araba (MMA)	Servicios Educativos Rurales (SER)	Oinarrizko zerbitzuak ematea (ura eta saneamendua)	Cajamarca / Ayacucho

Geuk egina.

01. Irudia

Parte hartu duten Euskadiko eta Peruko erakundeen eta txosteneko ikerketa-kasuen banaketa geografikoa



Guk egindakoa mapa honetatik abiatuta:

https://www.orangessmile.com/common/img_country_maps/peru-map-1.jpg

Ondorio nagusiak:

1. Euskadiko erakundeetako tokiko bazkideak ezagunak dira haien profesionaltasun eta konpromiso sozialagatik. Esku-hartzen dituzten komunitateetan sustraituta daude, eta eskualde haietako erreferente dira. Euskadiko erakundeek bazterrean utzitako komunitateak garatzeko eta haien eskubideen alde egiteko interesari eutsi diote eta era nabarmenean lagundu dute prozesu horietan. Ondorio nagusi eta garrantzitsuena da guztiok bereziki nabarmendu genuen genero-ikuspegitik egindako lanagatik elkarrekiko errespetua dagoela. Izan ere, urteetan finkatu da eta, horri esker, eraldaketak gertatu dira erakundeetan, planak eta politikak garatzean eta mekanismoak abian jartzean. Horrek berdintasuna sustatzen laguntzen du bai esku-hartzeetan, bai erakundeetan bertan, azken horiek mistoak izan ohi baitira.
2. Bigarrenik, aho batez aintzatetsi da Euskadiko erakundeek haien tokiko baliokideekiko duten enpatia, laguntza eta malgutasuna. Ulermena egon da jarduerak gauzatzeko epeetan aldaketak egon direnean, helburu den populazioaren eskaeren arabera doitzean eta bestelako kontuetan; guztiak oso estimatuak izan dira Peruko GKE-en aldetik, eta laguntasun- eta konfiantza-loturak sendotzeko balio izan du. Egoera hori bereziki nabarmendu zen, pandemia eta behartutako berrogeialdia dela eta, populazioaren sektore batzuek tokiko erakundeen larrialdiko laguntza behar izan zutenenean, eta Euskadiko GGKE-ek onartu/ulertu egin zuten erantzun hori.
3. Peruko hiru eskualdetan Egoaizia – CIPCA, DESCOSUR – Mugen Gaietarako eta CENDIPP – Proclade Yanapay erakundeek garatutako tokiko ekonomia laguntzeko proiektuek erakutsi dutenez, emaitza esanguratsuak lortu ditu haiekin lan egin duen populazioak, ez soilik diru-sarrera ekonomikoak hobetzea, baizik eta betebeharren titularren aurrean agentzia sozialerako tresnak transmititzea ere. Alde oso txikiarekin, ekintzailtzarako udaletako gobernuen aintzatespena eta laguntza ekonomikoa eskatzeko eta eskuratzeko gai izan dira. Analisitik sortzen den ondorioetako bat da prozesu arrakastatsuak direla, baina finkatzeko eta hedatzeko denbora behar izan dutela. Aipatzekoa da, halaber, esku-hartze horiek haietan parte hartu zuten emakumeen bizitzan inpaktua izatea lortu zutela, ñabardurekin. Alde batetik, haien autonomia ekonomikoari lagundu zioten, ekoizle gisa duten gaitasunean konfiantza sortuz eta erakunde mistoetako zuzendaritzetan haien presentzia eta parte-hartzea sustatuz. Generoaren behar praktikoen eta emakumeen ahaldunderako bidearen artean dagoen lotura estuaren beste froga bat da ondorio hori.
 - 3.1. Tokiko garapeneko proiektuetan, jarduten den populazioko emakumeengan ekoizpenerako ezagutzak sortzera bideratutako ekintzak garatzea ez da erraza hainbat arrazoiengatik; hasi hezkuntza-maila txikiagotik eta "emakumeentzat ohikoa ez den" lan-trebakuntzara sartzeko aukeraraino. Aztertutako proiektuek ekarpen argi eta erabakitzaileak dituzte, emakumeen autonomia ekonomikora bideratutako estereotipotik aldentzen direnak. Horri esker, bizi-kalitatea hobetzen laguntzen da eta ohiko ekoizpen-jardueretan gaitasuna duten pertsona gisa agertzen dira komunitatean.
4. Azterketa honetarako aukeratu diren bi erakunde feministen ekimenak (Centro de la Mujer Peruana Flora Tristán eta ADSIS Fundazioarekin eta Mundi Farmazioalariak Euskadirekin garatutakoa eta Medicus Mundi Gipuzkoak Movimiento Manuela Ramos-ekin garatutakoa) sexu- eta ugalketa-eskubideetara bideratuta daude, bereziki gazte eta nerabeei zuzenduta –zeinak elkartzeak sortzera animatu baitzituzten– eta bi esparru jakinetan: hezkuntza eta osasuna. Lehen kasuan, bi GKE-ek Lima Metropolitarrako

zenbait distritutako Hezkuntza-erakundeekin loturak ezarri zituzten, baina baita oihaneko eta Andeetako hegoaldeko eskualdeetan ere. Sexu-hezkuntza osoa betetzearen alde egin zuten –eskubideen aurkako talde fundamentalistek gero eta gehiago mehatxatzen duten plana da–, eta Osasunari dagokionez, arreta-zentro publikoetan nerabeentzako zerbitzu eraginkorraren alde. Haien ekimenetan ehunka irakasle eta osasun-langilek ere parte hartu zuten, gaiekiko sentikortasuna eta konpromisoa duten profesionalen oinarri nahiko iraunkorra sortzeko asmoz. Azterketaren tartean, bi erakundeekin harremanetan egon ziren nerabeek informazio-azoketan parte hartu zuten, bideoak eskaini zitzaizkien, eta beste eskualde batzuetan milaka izan ziren, baita ehunka osasun-profesional eta hezkuntza-erakundeetako guraso ere. Laburbilduz, gero eta aktiboagoa den erlijio-fundamentalismoaren erasoak jaso arren, bi erakundeek irakasleen trebakuntzarako eta gazteen kolektiboetarako oinarriak finkatzeko gai izan ziren.

- 4.1.** Bi GKE-en ekintzek COVID-19aren pandemia eta, horren aurretik, irakasleen greba luzearen eragina pairatu zuten. Horrez gain, aipatu beharra dago Interneteko seinalea ez dela iristen herrialdeko eremu jakin batzuetara, eta profesionalak ez ezik ikasleek ere ez dutela ordenagailu edo mugikorrik eskura. Gorabeherak egon arren, proposatutako helburuak bete ziren: ikasleen artean eskubideen inguruko kontzientzia handiagoa sortu zen eta eskubide-titularren artean erakundeak sortzeko haziak utzi ziren. Bi erakunde feministetan jardunbide egokiak daude, haien proiektuen kanpoko ebaluazioak egiten baitituzte. Horrekin ondoriozta dezakegu erakundeen esku-hartzea sendotu egin dela.
- 5.** Erakunde publikoek populazioari konpromiso eta eraginkortasun handiagok eskaini beharreko zerbitzutan laguntzen aritu dira bi ekimen, bat Andeetako landa-eremuetan, Cajamarca eta Ayacucho, SER – Medicus Mundi Araba elkartearen eskutik, eta bestea oihaneko eremuko Iquitos hiriko eremuetan. Ekimenetako bat ur edangarria eskaintzeko lanetan aritu da, ura eskubidea baita, eta bestea, eskubideen alorrekoa da, genero-indarkeriarik gabeko eta estatuko babesaren duen bizitza izatearen eskubidea lortzera bideratutakoa. Altueran dauden eremuetan ur edangarrirako sistemak instalatzea eta/edo konpontzea izan da aipatutako eskualdeetan egin den lan bat. Estatuko egoera politiko konplexuak eta lurralde horiek hiriburuarekiko duten urruntasuna dela eta, esan beharra dago oinarriko zerbitzuak emateko profileen sartzen diren bi proiektu horien esku-hartzeetan joera bat sortu dela; izan ere, Estatuari dagokio, betebeharren titular den heinean, legeak eta hitzarmenak betetzen direla zaintzea. Edonola ere, populazioan eskubide horiek izatearen kontzientzia sortzen saiatu zen, distrituetako udalerriei eskaerak egiteko, ur edangarriaren kasuan, edo gobernu zentralari eta eskualdekoari, genero-indarkeriari dagokionean. Ur edangarriaren zerbitzua kudeatzeko eta fiskalizatzeko instantzietan udalerriekin batera tokiko emakumeak sartzea proposatu zen. Horretarako, komunitateetako emakume horiei eta gizonei zuzenduriko hainbat tailer-saio sartu behar izan ziren, eurenak diren eskubideak zein diren erakusteko. Indarkeriarik gabeko bizitza izateko eskubideari dagokionez, emakumeen babesaren inguruan egindako lanean, sarean eta erakunde publikoekin gero eta modu koordinatuagoan lan egitean ikusten da legea betetzen dela ziurtatzen duten espazioak izateko beharra dagoela, baita administrazio-zentroetako periferietan dauden eta zerbitzu-publikoetarako sarbiderik ez duten emakumeengana iristeko aukera izateko beharra.
- 5.1.** Tokiko agintariekin eta langile publikoekin lan egitea konplexua da. Horren adibide garbia dira eskubideen bermeari dagokionez aipatutako bi kasuak, baina ez hori bakarrik. Eskubideen ikuspuntuaren barruan, erakundeek agintariekin trebakuntza, sentsibilizazio eta eragin politikoa lantzen badute ere, langile publikoen errotazio handiak zaildu egiten du hitzarmenei eustea eta prozesuei jarraitutasuna ematea.

Ezgonkortasun politiko horrek erakunde publikoetatik gauzatu beharreko tokiko erakundeen programak aldatu zituen, eta betebeharren titularrekin egindako hitzarmenak gauzatzeko aukera kendu zuen. Horrek, gainera, kostu ekonomiko eta denbora-kostu handia du, etengabeko ahalegina egin behar baita espazioak sortzeko eta haiei eusteko (adoste-mahaiak, aurrekontu parte-hartzaileak, politika publikoak diseinatzeko, gauzatzeko eta haien jarraipena egiteko prozesu komunitarioak eta abar) eta hitzarmenak gauzatzeko (xedapenak, araudiak, trebakuntza-planak eta abar). Laburbilduz, eta aztertutakoa kontuan hartuta, erakundeek egindako lanak eragin politikoaren eta aliantzak ezartzearen arteko lerro mehean kokatzen dira, ezgonkortasun politikoaren gorabeheren aurrean tinko eusten diren aldaketa esanguratsuak sortu ahal izateko.

- 6.** Gero eta urriagoak diren funtsak eskuratzeko konkurrentzia lehiakorraren eredu, sektorearen burokratizazio handia eta baliabide propioen gabezia izan daitezke Euskadiko erakundeen lana zailtzen duten arrazoietakoz. Halakoengatik, tokiko kidearekin bat egiten duten edo lana partekatzen duten lurraldeetan koordinazio handiagoa ezartzea oztopatzen da. Landa-lanean zehar egiaztatu da herrialdeko erakundeen artean koordinazio-kasu gutxi daudela plataforma eta foro formaletatik kanpo, eta behar jakin baterako une puntualetara mugatzen direla, denboran zehar luzatzen diren eta testuinguruaren eta lurraldeen konplexutasunean oinarrituta dauden trukeak izan beharrean, proiektu eta esku-hartzeekin elkarriketa bat ezartzeko helburuarekin.
- 7.** Eusko Jaurlaritza da Euskadin lankidetzarako funts gehien bideratzen dituen erakunde publikoa, eta, beraz, lehentasunei dagokionez hartzen dituen erabakiek eragin handia izango dute Euskadiko erakundeen estrategia orokorretan. Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana (2018-2021) abian jartzeak aldaketak eragin ditu lehentasunetan eta inpaktu nabaria izan du erakundeen prozesuetan. "Emakumeen ahalduntzea" eta "giza-eskubideak defendatzen dituzten pertsonak babestea" eremuei lehentasuna emateak ibilbide luzeko prozesuak eraldatzea eragin du baliabide publiko horiek lortu nahi badituzte. "Emakumeen ahalduntzearen" alde lan egitea eta ahaleginak batzearen beharra aho batez onartzen bada ere, baremaziorako aldaketak bat-batean ezartzea eta horiek oso argiak ez izatea eta gauzatzeko azkartasuna dira erakundeen ezinegonaren muina. Prozesuei ez zaie egokitzeko denborarik utzi, batez ere erakunde mistoekin batera egin diren tokiko ekoizpenari eta ekonomiari lotutako esku-hartzei dagokionez; zeinak, ikusi dugunez, asko baitira.
 - 7.1.** Kritika nagusia da ez dela oso ongi ulertzen nola ulertzen duen Garapenerako Lankidetzaren Agentziak ahalduntzea, erakunde feministekin lan egiteaz haratago. Emakumeen autonomia ekonomikoa sustatzea da adostutako alderdietako bat, haien gaitasuna handitzera bideratuta baitago, azterketa honetan aztertutako hainbat prozesutan erakutsi denez. Aurretik aipatutakoa dela eta, kontuan hartu beharrekoa da Garapenerako Lankidetzaren Agentziak proposamenak barematzeko lehentasunak aldatzean eta emakumeak ahalduntzeko eta mugimendu feministarekin lotutako proposamenak kontuan hartzean, garapen ekonomikoaren aldeko ekintzen barnean dauden emakumeen gaitasunak sendotzearen beste inpaktu positibo batzuk saihesten dituela eta Generoa eta Garapena alderdietako hamarkadetako "jardunbide egokiak" galtzea eragiten duela.
- 8.** Azaldutako zailtasunak izanda ere, ezgonkortasun politikoak, emakumeen eskubideek pairatzen dituzten mehatxuak, COVID-19ak herrietan izandako inpaktuak, lurraldeen

eta kulturen ezberdintasun eta aniztasunak, Estatuak periferian duen ahultasuna eta abar kontua hartuta, Euskadiko eta tokiko erakundeek herrialdean egindako lanari eusteaz gain, aurrerapenak egitea lortu dute testuinguruaren zailtasunei aurre eginez. Aztertutako denbora-tartean, herri nekazarien eta arrantzaleen diru-sarrerak eta bizi-baldintzak hobetzearen alde egin da, nerabeek beren sexu- eta ugalketa-eskubideekiko duten jarrera sendotu da, urruneko komunitateei edateko ura eman zaie eta emakume askori indarkeriarik gabeko bizitza izateko borrokan lagundu zaie. Kolektiboaren eta eskubideen banako eta taldeko defentsaren aldeko apustua etengabekoa izan da Euskadiko erakundeek lagundu eta tokiko kideek ezarritako prozesuetan.

Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen kide diren
Euskadiko GGKE-en lanak (2012-2022)
Perun eragindako inpaktuen
ebaluazioari buruzko
Dibulgazio-txostena